

herioak
bietan
jotzen
du

ITXARO BORDA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ITXARO BORDA

herioak bietan jotzen du

*Konfinamendu garaian,
gingileraino emokatuz
tragatu ditudan telesaila
ugarien omenez.*

Espero zuena gertatu zen azkenean. Alaba itzuli zitzaion. Bederatzi urte baziren desagertu zela. Ama hunkitua, hor zegoen, negarrez hipaka, alaba besoetan, estuki tinkatzen. Nork uste? Non iragan zituen urteak? Bahitzaileak ongi tratatu al zuen? Bortxatua izan zena? Ama hark, berriz aurkitzearen atseginarean urmaelean itotzen uzten zituen galderak baizik ez ziren. Musu eta mamur ari zen, amultsutasun ontzi, egongelako ate kantoia aita zegoela, ele huts eta harritua.

Montanako Billings herriko poliziak Rose xerkatu zuen, debaldetan. Guraso xifrituen pena arindu nahi zuten. Jerry eta Tonia Elbert bikote ohoretsua zen, bide zuzenetik zebilena, urrats faltsurik egin gabe. Errantxo baten jabe izanik, behi hazkuntzatik bizi ziren eta erraza zen mendi malda belartsu eta idorretan barna, xendatik ateratzea, zortzi bat urteko neskatxa batentzat bereziki. Otsoek eta koiotek haurraren gorputz hondarrak klikatu zituztela ondorioztatu eta, polizia-etxeko sotora jaitsiz, ikerketa cold case sailean sailkatu zen.

Aitak eta Milk izeneko Rosaren anaia zaharragoak kasua kasik ahantzia zuten Rose berriz agertu zenean errantxo atarian. Ortzi-mugako gandor zizelkatuak distiraraziz, eguzki apalaren arraioak Toniaren begitarte zoriontsuraino heltzen ziren. Hitzik gabe zegoen Jerry, halaber Milk, egongelako sofa higatuan nagi, joko elektronikoren batean tematzen. Gibelean zeukan armairu gainean argazkiak lerrokatzen ziren, familia bizi normal bateko lekukotasun gisa zainduak.

Milkek bere arreba onartu zuen. Haurtzaroko memoria harrotzen saiatzen ziren biak. Rosak, hamazazpi udaberriko neska gazte baten joerak, gustuak eta jaidurak zituen. Musika maite zuen, Jefferson Collegetik bueltan egunak pantailari josirik eramatea edo kirol apurra egitea etxe saihetsean. Baserriaren aldamenean, pilotan aritzeko plaza bat eraiki zuen Jerry Elbertek. Bere farmer lagun euskaldunak gonbidatzen zituen, igande arratsaldetan pic-nic batera, eta ongi berotu ondoan, pilota kilikatzerara.

Alabari itzaletik jarraitzen zitzaion Tonia. Ez zuen urrats bat egiten ahal amaren begiradatik at, bigarrenez desagertzeko arriskuan balego bezala. Egia erran, Toniaren egunak zapuztu ziren Rosaren bilakuntza lanak ebaki ziren arrastiri hartan. Baina bazuen jada aste bete, odola zainetan epel igotzen sentitzen zuela. Hainbeste gauza bazuten elkarrekin partekatzeo, huts egin ordu zurbil haiek oro berreskuratzeko!

Tonia, Jerry eta Milk bezain harrtua zen Rosa. Zein erraza izan zitzaion Elbert sendiaren errantxoan errotzea. Nola mistifika zezakeen, behiala alabaren desagertzeak errautsi familia penatu hura? Egia zen beraz, esperantza, azkena akabatzen zen sentimendua zela. Egoitza berrian, anaia hurbil zeukan eta amaren amodioa sekulako opari baten antzera hartzen. Ez zuen desbideratu behar, bere bizitza zerotik hasteko baliabide finkoa zen.

Gauetz, loak eraman aitzineko minutuetan, nondik zetorren gogoratzen zen: gazte bihurri zentro batean pasatu zituen bizpahiru urte, osasuna zalantzan jartzeraino drogarekin eta mugako sexu jarduerekin lanjerrean jardun ondoren. Azkorri hitsean, telebistako programa batek erraietaraino gatibatu zuen: bederatzi urte lehenago Golondrinas izeneko errantxo aberatsetik bahitu neska baten potreta zaharrarazia ikusi zuen, eta bera zen, kap e tut. Mugikorrean xehetasunak bilatu eta Rosa izateko lanetan hasi zen, hizkera, nortasuna, irudia bereganatzen.

Lehen egunean berean, Toniak bere logela erakutsi zion, ez zela deus aldatu azpimarratuz. Ohe gainean zegoen panpina eskuratu zuen eta sudur pera eraman usnatzeko. Ama harro zen, alabak bere iragana ezagutzen zuelako, fisikoki, bost zentzumenak bipil. Senarrarekin eleketa entzuten zituen gero:

-Beitu, gogoratzen duk...

-Nahiko niken jakin non iragan dituen hondar urte hauek...

-Ez diok ezer. Larria izan behar dikek.

Toniak ez zion galdera nahastailerik egiten. Bahitua egon zitekeen, maniako sexual izugarri baten atzamarretan preso. Torturatua, bortxatua eta gosetua. Gidoirik beltzena irudikatzen zuen. Bizkitartean, ongi moldatzen zen Rosa, Milk bere anaiarekin bikain konpontzen zela, lizeoko lagunekin Billings hiriko ostatu eta dantza lekuetara joateko.

Kameleoi bat zen. Milken edo Toniaren erranak arraformulatuz eta memorizatuz bere identitate-puzlea osatzen zuen. Askotan, itxindi gorrien gainean ibiltzen zela iruditzen zitzaion: simulakroan ari zela nor edo nor konturatzen bazen, bistan dena, xahu zen. Rosa, antzerkilari onak, ez zuen bazter urratsik egin, isiltasunak misterioa zedarritzen ziola.

Jerry Elbertek bazekien, leku ziurretik, andrearen zoriona egiten zuen Rosa ez zela bere alaba. Beste norbait zen. Nondik zetorren? Nola ibil zitekeen igerika hain trebeki, tragediak urratu familia horretan? Nolaz zekien hainbeste xehetasun beraiei buruz? Erantzunik gabeko eskakizun asko bazituen eta burua arintzen saiatzen zen mila behi esnedunak barrukira bultzatzen zituenean edo traktore handiaren gainean belar lehorra mozten zuenean.

Tonia ez zen ohartu, baina Jerryk begiztatu zuen Rosaren belarri-lotura ez zen batere benetako Rosarena. Egiakoaren eta gezurrezkoaren arteko leizea, detaille soil horrek azpatzen zuen. Leize hori Jerryren hobia izan zitekeen, ekin behar zuen, zer edo zer egin. Sekretu bat bazeukan, hamar urteotan, gordean atxikitzen zuena, onartu behar zuelarik, Rosaren pare, bera ere antzezle paregabea zela. Ez zuen durduzatu behar.

Alabaren galtzeak inarrosi familiaren irudia ez zuen hautsi nahi. Mina, auzoek eta ezagunek zor zioten begirunearen oinarria zen. Urrikalmendu olde etengabeak gerizatzen zituen. Eta ez zen eder dolorea doloreari eranstea. Rosa iruzurgile honekin hitz egingo zuen. Tonia, menturaz, bigarrenez amilduko zen eta ez zuen horrelakorik merezi.

Mugikorrarekin Rosaren argazia hartu eta Billingseko polizia-etxean zeukan lagun batengana ernatu zen:

-Nor da neskatxa hori?

-Entzun diat Rosa etxera itzuli zaizuela... bai, gauza ona duk. Bederatzi urteren buruan, baduk zerbait!

-Dudak dizkiat...

-Nahi duk iker dezadan?

-Ez lukek gaizki.

Hiritik kanpoko landa idor baten hegian, eliza zuriaren aldamenean hedatzen zen hilerrian egon zen, Elbert sendiaren belaze haseko hobiaren aitzinean makur: gurutze biluziak seinalatzen zuen egiazko Rosa zetzan eremua, sei oinatz lur pean. Oroitu zen: bederatzi urte zituen, polita zen eta bakarrik ziren errantxoan. Alabarenganako desioa piztu zitzaion salbai, haren logelan sartu zen, bortxatu eta esku ahurrez urkatu zuen, pasatutakoa harri hotzaren azpian gera zedin. Ukan zuen denbora hilerrirainoko joan etorriaren egiteko.

Milk eta Tonia supermerkatutik bueltatu zirenean, Rosa desagertu zela erran zien, eta beldur panikoz ito giroan, poliziaren laguntzarekin, bilaketak abiatu zituzten, aitaren balizko mehatxu zakarra ahantziz. Betirako. Uste zuen. Rosa berriz agertu zen arte. Amaren besoetan gozatzen ikusi zuenean, bera izan zen harrituena, zantzu izpirik erakutsi ez zuen arren.

Goiz batez, eguneko lehen zirrintak inguruko mendiak zilarrez apaindu baiko, Tonia, Rosaren ganbarara igan zen, gosariarekin. Alabaren hatzik ez zegoen. Milki deitu zion. Semea jadanik lizeoko norabidean zitekeen, Rosaren konpainian. Gehiegi kezkatzeak ez zuela balio pentsatu zuen. Etxeko lanetan sartu zen buru-belarri, gaztetasuna bizitzako une berezia zela marmaraz, ez zela bera ere nerabe perfektua izan gogoratuz.

Halako batean, biak edo zirela, hilotz bat aurkitu zelako berria iritsi zen errantzora. Crows Rockseko harritzarren maldan hain zuzen. Gorpuzkiaren muturra zirtzikatua zen eta poliziarri neke zitzaion, lehen bistan bederen, nor zen jakitea. Toniak, hargatik, ez zuen gorpuzkiaren eta berriz ere etxetik alde egin zukeen Rosaren arteko haririk irun. Eta, honenbestez, Milk bakarrik etorri zen Jefferson Collegetik.

Handik gutxira, Ipar Dakotako Fargo hiriko ikertzaile buruaren bisita ukan zuten. Marge Gundersonek Rosaren potreta erakusten zien. Ba omen zekiten errantxoan egon zela, Rosa, etxeko alaba desagertuaren zeregina betetzen. Tonia galdua zebilen: zer ziren istorio horiek? Ezagutu zuen, Rosa zen, dudarik ez zeukan. Zergatik bi Rosa aipatzen zizkioten orain? Senarregana bildu zen, sosegu bila. Jerryren atzeraka hormatua nabaritu zuen. Erotzekoa bazen. Zer zuen bada?

Inkestaren baitan, Crows Rocksen agertu Rosaren identitatea zehaztu zuten. Fargoko zentro itxi batetik eskapatu Kate Madison umezurtza zen. Alyson zoritxar-kidearekin, biek ondu zuten iruzurraren gidoia, telebistan, Billingseko Rosaren kasua bihikatzen zuen Crimes emankizuna begiestetik landa. Alysonen lekukotasuna ezin zoharragoa zen Marge Gundersonen gustuko. Toniaren auhenak Montana guztia urratu zuen: non zegoen beraz Rosa, bere alaba, bederatzi urte hauetan misterioski desagertua?

Marge Gunderson ez zen presatua. Fargon ez zeukan nehor aiduru. Toniaren xangrinak hunki eta lagunduko zuela erabaki zuen. Billingseko Indian Motel merkean ohatu zen, zalapartarik gabe, bilaketak kudeatzeko. Tabernan zegoen batean, Carter Smithen mahaian jarri zen, bere whiskia zurrupatzeko.

-Badakit zer agitu zaion Rose Elberti...

-Zuk badakizula?

-Familiaren hilobian ehortzia izan da.

-Zergatik egon zara isilik gaur arte? Zer duzu kontatzeko?

Carter Smith, arratsalde hartan, hilerriko sarreran zegoen, mozkorra. Plastiko beltzez troxatu pakete txikia zaraman gizon bat hurbiltzen jarraitu zuen, zulo bat palaz irekitzen gero, paketea bertan hobiratzeko. Iruditzen zitzaion Jerry Elbert ezagutu zuela, baina ez zen segur, horregatik egon zen, luzaz, satorra bezain mutu. Sendia inarrosten zuen bigarren afera totelaren ondotik, hitz egiteko premia zeukan, premia gorria.

Eguerdi irian Elbertarren errantxoia setiatu zuen Billingseko poliziak. Marge Gunderson buru. Egongelan sartu ziren banpez. Tonia sofan zegoen etsia, Jerry aldiz zutik, armategiaren aldamenean. Emazteak ez zuen ulertzen. Jerryren atxilotzera zetozen.

-Etorri gurekin... ez egin manerarik!

-Errugabea da, errugabea da!

Oihuka ari zen Tonia beso ukaldi indartsu batez bulkatu zuen Marge Gunderson determinatuak. Jerry ez zen zuri-zuria, alderantziz, froga biologikoak bazituen: Carter Smithen agerpenetatik hasi eta, gauez, Elbert sendiaren hobia arakatu zuten, Rosa zekarren paketea aurkitzeko. Neskaxa bortxatua eta berehala urkatua izan zela azaldu zuten indizeek. Aitaren ADNa atzeman zuten alabaren azazkaletan.

Abantzu hamar urtez gezurretan sustraitu zen Elbert familia. Uste zuten Rosa desagertu zela edo ideia txarreko sadiko batek bahitu zuela, neskaren gorpuzkia etxeko hilobian ehortzia zen bitartean. Toniak ulertu zuenean alabari min egin ziona bere senarra zela, duntzetatik

jauztear egon zen, eta saloi munttoa suntsituko zuen, ikerle taldeko medikuak lasaigarri xirrizta bat eman ez baldin bazion.

Etxea abandonatu aitzin, Jerry Toniaren belaunetara erori zen, urrikaltzeko, istripu bat izan zela. Inpultso itsu batek eraman zuela bortxaketara. Maite zuela, ez zuela horrelakorik nahi, barkatzeko eta barkatzeko. Emazteak kopeta apaldu zuen, gertatutakoaren ahalkea berea bailitzan. Funtsean, ahalke zen, senarrak hedatu gezurra xaloki irentsirik. Jerryren joko maltzurtean sartu zen, alaba desagertuaren doluz, zintzoki: engainatu zuen.

Kate Madison iruzurlariaren erailketa ere leporatu zioten Jerry Elberti. Bigarren Rosak ez zuen iharduki. Lizeotik jalgitzean, Jerryren truckera igo zen, fidakor, Crows Rockseraino joateko. Gizonak, han, lepo hezurtean eman kolpe bakarraz akabatu zuen. Esku ikara izpirik gabe. Nor ibiliko zen Fargoko umezurztegi batetik eskapatu neska gaizo baten atzetik? Hori zen Jerryren parioa. Galdu zuena, Marge Gundersonen zolitasunari esker.

Aulki elektrikoa merezi zuen. Hilketaren horien eta ikertu gabe gelditzen diren beste hainbesterengatik. Leizea zabaldu eta gezurraren birla zartatu zitzaion.

Milk eta Toniak ez zioten inoiz barkatuko.

Itxaro Borda
2020ko irailean
Baiona, Montana